

JARDUERA

BAKEAREN BINGOA

Bakea eraikitzeko elkartzen gaituzten gauzei erreparatu behar diegu, ez, ordea, desberdin egiten gaituztenei. Zerk elkartzen edo berdintzen gaitu inguruan ditugun pertsonekin? Eta urruti bizi direnekin? Ba al dugu partekatzen dugun ezaugarririk? Egin dezagun bingo bat!

Helburuak

- Bakearen Eguna ospatzea (urtarrilak 30).
- Bakea modu proaktibo batean eraikitzen laguntzen ditugun elementuei buruzko hausnarketa sustatzea.
- Eguneroko bakearen ikuspegiaren baitan norberaren erantzukizuna barne hartzeak duen garrantzia azpimarratzea.

Behar diren materialak

- 1. eranskina: Bingo-txartelak.
- Arkatzak, boligrafoak edo errotulagailuak.



Atera argazkiak jarduerari edo bideo bat grabatu, ikastetxeko blogean edo egunkarian argitaratzeko edo sare sozialetan zabaltzeko.



URTARRILAREN 30A

Bakearen Eguna

Bingo!

Ikasleei bakearen eguna ospatuko dugula esango diegu, eta horregatik, bingo berezi batera jolastuko dugula azalduko diegu. Helburua da gutariko bakoitzak bere bingo-txartela osatzea, eta horretarako, gelako beste neska eta mutil batzuekin partekatzen ditugun gauzak aurkitu beharko ditugu.

- Jarduerari ekin aurretik, inprimatu bingo-txartelak: txartel bat parte-hartzaile bakoitzarentzat. Txartel zuri bat ere aukera dezakezu, gelako beharrak, interesak eta helburuak hobeto islatzen dituzten elementuak adierazteko.
- Banatu bingo-txartelen kopiak. Azaldu "bizikletaz ibiltzea atsegina dut" gisako deskribapenak ikusiko dituztela, eta gelan laukitxo hori sinatuko duen neska/mutil bat aurkitu behar dutela. Pertsona batek ezin du behin baino gehiagotan sinatu txartel bera, nahiz eta deskribapen batekin baino gehiagorekin bat etorri. Ikasleren batek txartela osatzen badu, bere mahaira joango da eta besteen txartelak sinatzen jarraitu ahal izango du.
- Txarteletan zuri utzitako laukitxo bat dago. Parte-hartzaileek deskribapen pertsonal bat idatziko dute bertan, gainontzekoek sinatzeko.

Guztiok txartelak sinatuta edukitzean amaituko da jolasa. Gelan ondo ikusten diren leku batean jar ditzakegu txartelak, besteekin partekatzen ditugun gauzak ondo ikusteko eta jolasaren inguruan hausnartzeko:

- Erraza izan al da gure fitxa betetzea?
- Harritu egin al gaitu sinaduraren batek? Zer gauza ez genuen ezagutzen gure gelako ikaskideei buruz?
- Zenbat jendek partekatzen ditu hasiera batean pentsaezinak ziren gauzak?
- Ba al duzu ezaugarri komun bat gelako pertsona bakoitzarekin?
- Zergatik da garrantzitsua beste pertsona batzuekin elkartzen gaituzten gauzak aurkitzea?



BINGO! Bila ezazu honako ezaugarriak dituen norbait...

Igeri egiten daki	Patata frijituak atsegin ditu	Barazkiak jaten ditu	Kirola egiten du	Txakur bat du
Beste herrialde batean egon da	Arreba/ahizpa bat du	Ez du anai-arrebarik	Bere familiako norbait beste herrialde batean bizi da	Txokolatea gustatzen zaio
Txistu egiten daki	Maskota bat du, baina ez da ez txakurra ez katua	Bizikletan ibiltzen daki	Bere urtebetetzea zurearen hilabete berean da	Loreak atsegin ditu
Pintatzea gustatzen zaio	Txangozalea da	Azkar egiten du korrika	lzoikia gustatzen zaio	Beste hizkuntza bat hitz egiten du
Matematikak gustatzen zaizkio	Zure kolore gustukoena berea ere bada	Zure begien kolore bera du	Anai bat du	



BINGO! Bila ezazu honako ezaugarriak dituen norbait...
